GAZTETXEA

GETARIARRON TOPAGUNEA

52. zenbakia - 2006ko uztaila

artzape

]EUSKAL KANTU AFARIA]

FAROKO IRRATI-EKIPAMENDU BERRIA]

Jokin Argote punta-puntako mailan

SOKOA
Giro alaia eta jatorra!
Elkano 17. Tel.: 943 140 952

OSTOLAZA EDARITEGIA
kaxuelitak eta plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

ITSAS MENDI
gutiziak
Kaia z/g
Tel.: 943 140 993
Mugikorra: 649 947 855
20808 GETARIA

POLITENA
TABERNA JATETXEA
Pintxo bereziak • Bokata labekatu berriak • Berezitasuna menutan
Kale Nagusia, 9-11 • Tel. 943 140 113 • 20808 GETARIA

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

BABEXA
Getariako Dendari Elkartea

ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

Artzape ere oporretara doa!!!

artzape

52. zenbakia

2006ko uztaila

]5/Inkesta: zein da zuretzat festetako ekintzarik gustukoena?

]6-7/Getarian zer berri?

Txeruko azoka bertan behera

Getariako faroa

]8-11/Elkarrizketa:

Jokin Argote

]14 -15/Erreportajea:

Getariako gaztetxea

]19/Petrilaren harritarteetatik

]20/Katrapunako petriletik: "Bixkiak"

Maria Jesus eta Maria Isabel Luloaga

]23/Akordatzen? **Izozkia jaten**

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

GURE TXERU GETARIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikaako Saiburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Izaskun Larrañaga eta Monika Uzkiza [lan taldea] Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Harkaitz Etxaniz, Kepa Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro [kolaboratzaileak] Ion Arakistain, Haritz Alberdi, Joxi Erauskin [maketazio berria] Vicente Dávila [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1.075 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

FORU ALDUNDIA GETARIAKO UDALA

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

gutunak

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez **200** hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

Kontu berdinarekin jirabiran

Jarraitu, nahi baduzue, kaka zaharrari bueltak ematen.

Zuen zinegotzi ilegalizatuak edonoren aurka edozer gauza idaztea onartzen duzue, baina besteek beragatik idaztea ez duzue onartzen; eta nik Franco hilda zegoelakoan.

Nik ez dut inor kikiltzeko asmorik, ezta horrelako gauzetan denbora galtzeko gogorik. Zeuek zarete estrategia txoro honetan zabiltzaten bakarrak, eta herria engainatzeaz gain, gezurrak bata bestearen atzetik botatzen ari zaretenak, eta ni gezur horiek egiaztatzen soilik saiatzen naiz. Zuen zinegotzi ilegalizatuak eginiko proposamen kezkagarria berriz, ez dut nik plazaratu, berak baizik, hortik atera kontuak zein konbentzitua zegoen astakeria horretan. Eta zuek? Erretako babarrunak konpondu nahian?

Azpeitia, Azkoitia, Eusko Jaurlaritza, utzi hitzak mesedez!! Ez ezazue gauza hau okerrago jarri. Haiek mendi elkarteak dira, eta hau zinegotzia, ni Mallorca-ra joatea bezala.

Zinegotzi honen herria eta Aberria oso bigarren planoan geratzen da. Beti interesen arabera, eta denbora horren testigu!
Zuek berriz, nahi dituzuen lora guztiak bota zinegotzi ilegalizatuari, baina alferrik, harri bihurtzen dira eta. Ez du inongo batzordetan parte hartzen, ez dago ezertan parte hartzen, zertarako daukazue zinegotzi bezala? Ez al da herriak botoen bidez aukeratuta, herriarengatik lan egin beharko lukeen zinegotzia? Jakizue, herria engainatzen ari zaretela, eta gainera eman duen pauso bakarra, bere buruaren intereserako izan da. Horretarako kargua utzi dezala eta kito!!

Azkeneko idatzian kudeaketa okerra leporatzen zenidaten, beste azalpenik gabe. Benetan, jada, gaiztoen papera egitea ere ahaztu zaizue. Kolperik ez jotzea al da zuen kudeaketa? Hori bai benetako kudeaketa. Pasa den urtean Kulturan aurrekontutik pasa nintzela aurpegiratzen? Jakina, zuek nahiago duzue ez egitea, gehiago gastatuta egitea baino! Jakizue, horrenbeste aipatzen duzuen eragile sozialen kontuari buruz, ez dela ezer egiten… zeren, aipatu askotan egiten duzue, eta sinistu inoiz ez. Bada, eragile sozialei laguntza ematea zen arrazoi horietako bat, zer-nolako kontraesana ezta?

Horregatik ez du balio edozer gauza idazteak.

Aurten ere, herriaren onerako bada, musika eskola, entitateak, festak, liburutegia, edozein ekintza…. ni laguntzeko hor izango naiz, bai horixe! Zuei horrek min egiten dizuela? Hor konpon! Beti izan naiz zuek ekintza guztietan parte hartzearen aldekoa, baina ez duzue nahi, eta gainera ari direnengatik kritika gaiztoak egiten dituzue. Hurrengo udal hauteskundeetan, datozen lau urteetan zer egin behar den esatea baino ez al litzateke hobe lau urte hauetan bakoitzak herriari zer eskaini diogun aipatzea?

Festak gainean ditugula, besarkadarik estuena herritar bakoitzari, denontzako diren egun hauek ahalik eta umorerik eta elkartasunik handienean igaro ditzagula, eta aurrerantzean ere, bakoitzak bere erara herri hau maitatuaz, guztion bizimodua hobetzen lanean jarrai dezagula.

Andoni Aristi

Artzapen kazetari lanerako lagun bat behar da.

Interesatuek utzi Curriculum-a Txeruko postontzian edo Artzapeko posta elektronikora (artzape@topagunea.com) bidali abuztuaren 10a baino lehen.

Getariako Batasuna
jai herrikoi
eta parte-hartzaileen alde
batasuna

GETARIARRON TOPAGUNEA
artzape
Ondo pasatu festak!

inkesta

Zer da herriko festetatik gehien gustatzen zaizuna?

Ia festa guztiak lanean pasa behar ditut, baina gehien gustatzen zaidana Marmitako Txapelketaren eguna da.

Axier Ezenarro

Lagunekin egiten ditudan parrandak oso gustuko ditut eta baita marmitako eguneko bazkaria ere. Koadrilen arteko giroa ere gustatzen zait.

Izaro Manterola

Niri gehiena tiobiboak gustatzen zaizkit eta, baita petardoak botatzea ere. Lagunekin egotea ere bai.

Mikel Muñoz

Niri gehien gustatzen zaidana txupinazoa da eta baita frontoian dantza egitea ere. Haur parkea ere gustatzen zait.

Leire Aldalur

Artzapetik begira

Haritz Alberdi

Oporretan elkartasun internazionalista

Elkartasun internazionalista opor egunak aprobetxatzeko beste modu bat izan daiteke. Hil ala biziko borroka ohoretsu batean murgildurik dauden herrien arteko elkartasunean sinesten duten guztientzat oporrak, zuzenean beste herrietako askapen eta eraldaketa borrokak ezagutu eta gurea ezagutarazteko aukera paregabeak bihurtzen dira.

Mundu guztian zehar milaka borroka daude lurjabe handi, Endesa bezalako multinazional, korrupzioan eta errepresioan oinarritutako estatu, gerra inperialisten… aurka eta benetako demokrazi partehartzaile eta askatasunaren alde. Asko dira Injustizia, gosea, mendekotasunaren aurrean kontzientzia hartu, antolatu eta bakoitzari egokien iruditzen zaizkien borroka moldeez baliatzea erabaki dutenak. Heriotzan, zapalkuntzan, lapurretan, gerretan... oinarritzen den kapitalismo neoliberalak laguntzaile eta kolaboratzaile finak izan arren, gutxi batzuen aberastasuna eta gehiengoaren miseriaren alde pentsaturiko sistema honek, zorionez gero eta etsai gehiago eta handiagoak ditu, bai hemen eta baita munduan ere.

Munduan zehar dudan esperientzi urriak, borroka desberdin horiek zuzenean ezagutu eta bizitzeko aukera eskaini didate: ezin ahaztu ditzaket Mexikon 3.000 militarren mehatxupean bizi zen EZLNko komunitate batean izandako esperientziak, Guatemalan AEBetako bananera konpania baten eskuetan zeuden lurrak berreskuratzeagatik nekazariek bizi zituzten egoera gogorrak (erailketak...) edota Maputxeen lurraldean lurjabe handi eta polizien aurka beraien lurren alde ekiteagatik jasaten ari ziren errepresioa (espetxeratzeak...). Eta guztietan duintasuna! Erailketak, mehatxuak, torturak... jasan arren, burua zutik eta beste mundu baten alde borrokan. Horixe izan da leku desberdin hauetan bizi izan dudana. Eta aurten? Kolonbia, baina kontatuko.

Hainbat arrazoigatik aurten ez da urtero Txeruk antolatzen duen azoka egingo

Gure Txeru Elkarteak antolatutako Euskal Kantu afarian herritar ugari bildu ziren Antton Iztuetak prestatutako euskal kantuez gozatzeko

Hainbat eta hainbat urtetan Gure Txeru Elkarteak Euskal Liburu eta Disko azoka zerbitzua eskaini dio, abuztuko hamabost egunetan, Getariako herriari.

Egitasmo hau sortu zenean, honek zuen helburua oso zehatza eta ageriko zen: Getariako jendeari euskarazko liburuak eta diskoak eskuragarri jartzea, eta, horrela, euskara bultzatzen saiatzea.

Aurten gauzak aldatu egin dira, eta Gure Txeru Elkartekoek urteetan egin ohi izan den azoka ez egitea erabaki dute. Gaur egun jendeak nonahi lor ditzake liburu eta diskoak eta Getariako haurren hezkuntza euskaraz izatean, orain dela urte batzuk azoka egitearen helburua beteta dagoela adierazi dute Gure Txeru Elkartekoek.

Euskal Kantu afaria

Aurten, Euskal Liburu eta Disko Azoka bertan behera geratu da, baina euskal tradizioarekin ez dute hautsi nahi izan Gure Txeru Elkartekoek.

Elkartekoek ikusi dute betiko euskal kantuak indarra galtzen ari direla eta Getaria betidanik izan da herri abeslaria, ikusi besterik ez dago garai batean, txikiteoan tabernaz taberna zenbat kantatzen zen, baita afari eta bazkarien ondoren ere.

Hori dela eta, eta euskal kantuen tradizioa indartu nahian, uztailak 15ean Euskal Kantuen Afaria antolatu zuen Gure Txeru Elkarteak. Haur, gazte eta helduak bildu ziren Katrapuna plazan egin zen afarian, guztira 160 bat lagun bildu ziren afari ederra dastatu, eta Antton Iztuetak prestatutako euskal kantuak kantatuz gau eder bat pasatzeko asmoz.

Elkartetik adierazi dutenez, aurrerantzean atal hau jorratzea gustatuko litzaieke, eta jendeak izan ditzakeen gogo eta nahiak gustura hartuko lituzketela adierazi dute.

Irrati-ekipamendu berria izango du San Antongo faroak

Abuztuaren erdialdetik aurrera herriko faroan irrati-ekipamendu berria jarriko dute. Horren arrazoi nagusia, itsasoko gune batzuetan Santurtziko salbamendu-dorreko VHF emisioak ongi harrapatzen ez direla da.

Errepikagailu berri honekin, itsasoan dabiltzanek, salbamenduko oharrak, eguraldi iragarpenak eta bestelako berriak ongi jasotzeko aukera izango dute.

Ekipamendu hau txalupa txiki eta kanoei zuzenduta egongo da batik bat. Izan ere, aspalditik ari omen ziren ontzi horien jabeak estaldura eskasa zutela-eta kexaka. Izan ere, itsasoan hiru edo lau milatara irten behar izaten zuten ontzi hauek irratiko seinalea behar bezala jasotzeko.

Aukeren artean San Antongo faroa zegoen, eta errepikagailu berri hau jartzeko lekurik egokiena honako erabaki dute.

Amaia eta Jaione Nesken Pala Txapelketako txapeldun

Maiatzaren 5ean eman zitzaion hasiera Nesken Arteko Pala txapelketari eta dagoeneko baditu irabazleak: Amaia Alberdi eta Jaione Zulaika.

Finaleko partidan, Amaia eta Jaionek Argizka Balentziaga eta Begoña Agirreren aurka jokatu zuten, eta azken emaitza 30-27 izan zen; bi bikoteek partida estua jokatu behar izan zuten.

Lagunartean sortutako ideia izatetik, errealitatea bihurtutako ekimen arrakastatsua izan da Nesken Arteko I. Pala Txapelketa hau. 13 bikotek eman zuten izena eta txapelketari amaiera emateko afari eder batez gozatu zuten.

Bisita gidatu zerbitzua dauka Turismo bulegoak

Apiriletik abuzturako hilabeteetan, Getariako Turismo bulegoak bisita gidatuen zerbitzua eskaintzen du herrira hurbiltzen diren bisitarientzat nahiz herriko jendearentzat. Denera, eta hilabete hauetan bederatzi irteera egingo dira eta bisita gidatu hauek bi orduko iraupena izango dute. Parte hartzeko 7 € ordaindu behar dira eta 4€ hamabi urte baino txikiagokoek.

Artzapeko urteko kuota pasako zaie harpideei

Abuztuan, urteroko legez, Artzaperik ez da izango. Abuztua harpideei kobraketak egiteko erabiltzen da eta, urte hauetan guztietan bezala, 18€ko kuota ordainduko dute herriko harpideek eta 20€ herritik kanpo bizi diren harpidetuek. Transferentzia egin nahi dutenek honako kontuetan sar dezakete dirua: Kutxa (0011067949) eta Euskadiko Kutxa (1920005322).

Kabaretaz jantziko da Salbatore gaua

Dagoeneko bi urtetik behinkako ohitura bilakatu da Salbatore Egunean, zenbait herritar herriko frontoian mota edo kultura desberdinetako dantzak dantzatzen ikustea, eta, aurten ere, horretaz gozatzeko aukera izango dugu.

Aurtengoan, Frantziako kabaret mundura eramango gaituzte Mouligne Rouge izena duen ikuskizuna eskainiz.

Hilabete baino gehiago daramate entseguetan murgilduta parte hartuko duten 22 bikoteek eta, dagoeneko, ikuskizun eder honetarako jantzien prestaketa ere martxan da.

Azken urteetan bezala, aurten ere, festetako egun handian ikusiko dugun konpartsako pausoak erakusten Marisa Merino dantza eskolako Joana del Hoyo irakaslea dabil.

Saharako hiru haur gure artean uda pasatzen

Bigarren urtez jarraian, udako hilabeteetan, Saharako haurrak gure artean dira. Lehengo urtean, bi haur izan ziren herrian, aurten, berriz, hiru gaztetxok pasako dituzte udako hilabeteak gurekin.

Haur hauek bi hilabetez izango dira herrian; uztailaren hasieran etorri ziren gurera eta irailaren hasiera arte bertan izango dira.

Hona etortzen diren haur askok igerian ikasteko aprobetxatzen dute eta horretarako Zumaiako edota Orioko igerilekura joaten dira. Hemen inguruan uda pasatzen dauden haurrek gure kultura hobeto ezagutzeko aukera dute, eta beraien kulturarekin zerikusia duten ekintzak ere egiten dituzte, hala nola, euren herrialdeko festa tipiko bat.

Jokin Argote:

“Oso gustuko dudan zerbait egiten dut, eta hori gauza ederra da”

Oraindik haur bat zela hasi zen Jokin pilotan jokatzen. Pilotaz gain, beste kirol batzuk ere gustuko zituela aitortu digu, baina gaur egun praktikatzen duen kirol honen aldeko apustua egin zuen. Orain dela gutxi pilotari profesional izatera pasa da eta Miako frontoian elkartu ginen gaur egun daraman bizitzari buruzko gorabeherez hitz egiteko.

Pilota profesionalera jausi egin aurretik herri askotako frontoietan jokatu du Jokinek.

Noiz hasi zinen pilotan jokatzen eta non eman zenituen zure lehenengo pilotakadak?

Txikitan hasi nintzen, zehazki zenbat urte nituen esaten ez nuke jakingo, baina badakit eskolan hasi nintzela. Federatuetan, berriz, hamabi edo hamahiru urte nituela hasiko nintzen, gutxi gorabehera; Añorgako klubera joan nintzen, eta, orduan federatu nintzen.

Nolatan aukeratu zenuen pilota eta ez beste kirolen bat?

Batez ere, aitak animatu ninduen kirol hau praktikatzera. Berak ere pilotan jokatzen zuen txikia zenean, eta, ni ere pilotan jokatzera bultza ninduen. Familiatik datorren zerbait dela esan dezaket; betidanik izan da pilota gustukoa gure familian; baina, orain arte, ni bakarrik iritsi naiz profesional izatera. Txikitan, futbola ere asko gustatzen zitzaidan; baina, azkenean, pilotaren aldeko apustua egin nuen.

Gazteagoa zinenean nola uztartzen zenituen pilota eta eskola?

Egia esan, inoiz ez dut arazo berezirik izan eskola eta pilota uztartzeko; ongi moldatzen nintzen biekin. Hala ere, nik esango nuke interes gehiago jartzen niola pilotari, eskolari baino. Oro har, ez dut arazo larririk izan biak batera egin ahal izateko, eta nahiko ongi moldatu izan naiz.

Pilotaz gain beste kirolik egiten al duzu?

Futbola asko gustatzen zait, eta mendian ibiltzea ere atsegin dut; pixka bat denetarik egitea gustatzen zait.

Zer sentitu zenuen Asegarcek kontratuaren berria eman zizunean?

Orain dela urte eta erdi, gutxi gorabehera, Asegarcekoekin entrenatzen hasi nintzen, eta, lehengo urteko abuztuan, ziurrenik, kontratua egingo zidatela esan zidaten. Artean, kon-

“Orain dela urte eta erdi, gutxi gorabehera, Asegarcekoekin entrenatzen hasi nintzen”

tratua sinatu gabe zegoen, dena hitzez adostutako zerbait zen, eta, ondorioz, banuen halako beldur pixka bat. Aurten, berriz, profesionaletan debutatuko nuela esan zidaten eta izugarrizko poza hartu nuen.

Etxean eta lagunartean zer moduz hartu zuten notizia?

Horiek ere izugarrizko poza hartu zuten, bai etxekoek bai familiartekoek, eta baita lagunek ere. Denentzat izan da berri ona.

Zer moduzko esperientzia ari zara bizitzen beste pilotari profesionalekin entrenatuz?

Oso esperientzia polita ari da izaten, oso gustura nago. Normalean, Tolosan entrenatzen dugu; bertan biltzen gara Asegarcerekin gauden pilotari gipuzkoarrak. Gazte asko gaude, txikitan elkarrekin ibili izan garenak elkartzen gara han; horregatik, elkar ongi ezagutzen dugu. Oso ondo pasatzen dut. Pilotari ezagunen artean, besteak beste, Unanuerekin eta Peñagarikanorekin entrenatzen dugu. Elkarren artean oso giro polita daukagu, eta oso gustura nago.

“Pilotari ezagunen artean, besteak beste, Unanuerekin eta Peñagarikanorekin entrenatzen dugu”

Zein da pilotari profesionala izatearen alderik onena?

Nire kasuan, oso gustuko dudan gauza bat egin dezakedala. Oraindik ez naiz pilotatik bizi, pilotan jokatzeaz gain, lana ere egiten dut; baina, oso gustuko dudan zerbait egiten dut, eta hori gauza ederra da. Ordaina ere izan daiteke, gauza positibo bat.

Eta alderik txarrena?

Ez dakit; baina, agian, kirolaria naizen aldetik, parranden istorioak izan daitezke. Kirolari gehienak bezala (guztiak ez esatearren) pixka bat kontrolatu egin behar izaten dugu.

Debuta Zarautzen izan zen, zer moduzko esperientzia izan zen zuretzat?

Izugarrizko esperientzia izan zen. Partida ona irten zitzaidan. Debuteko partidara koadrilakoak eta ezagun asko etorri zen, eta izugarria izan zen. Oso giro polita sortu zen bertan.

Urduri egongo zinen, ezta?

Urduri baino gehiago, partida jokatzeko gogoa zen. Urduritasun edo tentsio pixka bat banuen, normala den bezala; baina, gero, partida ona irten zitzaidan eta oso gustura geratu nintzen debutaren egu-

“ Debuteko partidara ezagun asko etorri zen, eta izugarria izan zen”

Ziztu bizian erantzuteko

Zenbaki bat: 7a

Kolore bat: urdina

Uda ala negua: uda

Janari bat: pasta

Musika talde bat: denetarik entzuten dut

Leku bat: Meaga

Pilotari bat: Beloki

Frontoi bat: Meagako frontoia

Hitz batean definitu zaitez: hori besteek esan beharko lukete

Amets bat: pilotatik bizi ahal izatea

narekin. Oso esperientzia polita izan zen.

Konta iezaguzu zure egun normal bat nolako den.

Astean zehar, goizez, lan egiten dut, eta, ondoren, entrenatzera joaten naiz; lagunekin egoteko ere denbora izaten dut. Normalean, egunero entrenatzen dut: astearte eta ostegunetan frontoian entrenatzen gara, Tolosan, eta, beste egunetan, nire kasa prestatzen naiz, nire kontura. Gimnasiora joaten naiz, kirol apur bat egitera eta, horrez gain, korrika ere aritzen naiz; egun horietan, batez ere, fisikoki prestatzen naiz, eta, beste bi egunetan, frontoian.

Pilotan jokatuz bizitzeko itxaropenik ba al duzu?

Itxaropena bai, baina oso zaila da. Oraingoz lana ere egiten dut, eta pilotarekin jarraitzeko asmoa ere badut. Aurten, bi urterako kontratua sinatu dut, eta, gauzak ondo joaten baldin badira, ea pilotan jokatzen jarraitzerik dudan.

Izaskun Larrañaga eta Monika Uzkiza

Mota guztietako ekintzak

Aurtengo udaberri eta udan ere hainbat ekintzez gozatzeko aukera izan dugu getariarrok. Hilabete honen hasieran, urtaroari dagokion giro ederra aprobetxatuz, zenbait herritarrek euren bizikletak hartu eta Gure Txeru Elkarteak antolatutako bizikleta irteeran parte hartu zuten. Hirurogehi bat pertsona joan ziren Leitza eta Andoain elkartzen dituen ibilbidea bizikletaz egitera.

Uda hastearekin batera, eta urteroko ohiturari jarraituz, herrian haur eta gazteek hainbat kiroli dagozkien teknikak ikasteko aukera zabala izan dute. Horien artean, surf edo bela ikastaroaz gozatzeko aukera izan dute herrikoek nahiz kanpotik etorritakoek.

Uztailean ere, urte asko martxan daraman egitasmoa ere izan da herriko txikienentzat: udaleku irekiak. Sorginmuño taldekoak izan dira honen arduradunak eta hauek ere hainbat ekintza egin dituzte hilabete horretan, besteak beste, Zarauzko hondartzara irteeta eta San Ferminetako entzierroa.

RIP CURL

GAZTEON GUNEA, GAZTETXEA

Jada zortzi urte igaro dira herriko gazteak Gazte Asanblada eta Gaztetxearen inguruan zenbait ekintza egiten hasi zirela. Etorkizunari begira ere, horretan jarraitu nahi dute.

Gaur egungo gaztetxeak orain zortzi bat urteko Gazte Asanbladan du sorburua. Lehenik eta behin, Getariako Gazte Asanblada sortu zen; herrian, eta gazteei, beraien beharren berri galdetu zitzaien, eta, denbora gutxiren buruan, herriko gazteak biltzeko, denbora pasatzeko, hainbat ekintzez gozatzeko... gela bat lortu zuten. Gazte Asanblada sortu, eta lokal bat edukitzearen artean, urte beteko denbora igaro zen; baina egoitza bat ez izateak ez zituen Getariako gazteak hainbat ekintza egiteko orduan kikildu.

Urte bete horretan egindako ekintza horiek kalean egin beharrean lau hormen artean eta sabaipean egitea aurrera pauso bat izan zitekeela iruditu zitzaien herriko hainbat gazteri eta, Udalari Kultur Etxeko bigarren solairuko gela bat eskatu zioten. Gela honek ez zuen erabilpen berezirik eta, negoziazio eta akordio batzuen ostean, gazteen bilgune izatera pasa zen. Hasiera hartan, Gaztegela izaera zuen, baina berehala pasa zen Gaztetxe baten nortasuna edukitzera. Kultur Etxean izandako Gaztetxeak 2001. urteko otsailean ireki zituen ateak.

Izaera aldaketa, bertan egiten ziren ekintzak eta inguruko etxebizitzak kontuan hartuz leku aldaketa bat jasan zuen Gaztetxeak. Gauetan kontzertuak izan ohi ziren, eta inguruko bizilagunekin eduki beharreko harremanak ona izan behar zuela eta, leku aldatzea etorri zen. 2003. urte hasieran Krisketaneko Iturrigaiñeko Eskualtxeta eraikuntzara pasa zen, hasiera batean herriaren erdigunean zegoen Gaztetxea.

Udalak aurrekoa baino handiago zen lokala eman zien herriko gazteei, baina ez zuen Gaztetxe batek zuen edo izan

Mota askotako musika izan da entzungai herriko Gaztetxean.

beharko lukeen itxurarik estetika aldetik. Hori dela eta, zenbait lan eta berrikuntza egin behar izan zituzten eta hainbat baliabide moldatu behar izan zuten Gaztetxearen itxura edo girotze egokia aurkitzeko. Horretarako, birziklapenera jo zuten, hau da, Gaztetxe zaharrean zegoen materiala birziklatu zuten. Naturako baliabideez ere baliatu ziren Gaztetxearen itxura aldaketarako, besteak beste, gaur egungo lokalean dagoen barra Gaztetape hondartzatik hartutako harriez egina dago.

Urte hauetan guztietan, hainbat ekintza egin dira Gazte Asanblada eta Gaztetxearen inguruan; lehenengo urteetan, txosnak jarri ziren, eta horrek harrera ona izan zuen herriko gazteen artean. Horrez gain, urte hauetan guztietan, kontzertu mordo bat eman dira. Atal hau izan da gehien jorratu izan dena. Ekintza horiez gain, zenbait diapositiba emanaldi eta hizketaldiak ere izan dira.

Zortzi urte hauetan hainbat herrialdetako jendea etorri da kontzertuak eskaintzera. Euskal Herriko txoko guztietako taldeak etorri dira, baita Espainiako hainbat autonomi erkidegotatik ere, hala nola, Kataluniatik, Valentziatik, Andaluziatik eta baita Galiziatik ere. Europako hainbat herrialdetako jendea ere etorri da euren kantuak eskaintzera, zehazki, Mendebaldeko herrietatik, besteak beste, Suitza, Belgika eta Alemaniatik. Baina musika ikuskizunak ez dira Europar taldeetara mugatu, Atlantiko itsasoaren bestaldetik ere, Ameriketatik hain zuzen ere, hainbat talde izan dira gure artean. Hauekin guztiekin harreman ona izan dute eta ez dute inolako arazo berezirik izan kontzertuak antolatzen dituztenek, eta gaztetxearen antolamenduan biltzen direnek.

Orain arte izan diren ikuskizunek, harrera ona izan dute herritarren nahiz eskualdeko jendearen artean, eta herriko Gaztetxean kontzertuak edo beste ikuskizunen bat izan denean jende asko hurbildu da bertara.

] udako lehiaketa

ZER DAGO GAIZKI ONDOKO ARGAZKIAN?

Lehiaketan parte hartu nahi baldin baduzu, bidali erantzun zuzena ondoko helbidera irailaren 12a baino lehen:

Kale Nagusia, 1-3 (Txeruko postontzia)

edo

artzape@topagunea.com

Ez ahaztu zure datuak jartzea: izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia.

Saria: LIBURU ETA DISKO BAT

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

Amaia Lazkano
Miren Lazkano
San Prudentzioa auzoa
telefonoa: 943 14 00 67
Mugikorra: 669 258 061
faxa: 943 14 05 44
20808 GETARIA
Xabin Etxea
LANDA ETXEA - JATETXEA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
faxa: 943 140 604
Mobila: 652 775 061
E-posta: eugeniouranga@hotmail.com

ASKIZU
Udal aterpetxea.
Ingurugiro eskola.
Erreserbak: 943 833 641
Etxe osoa: 200 €/eguna
Asteburua: 320 €
Askizu auzoa z/g 20808 Getaria - Gipuzkoa

elan euskadi
ONGD - GGKE

Hamarkada bat...
eta urte askotarako



Elan Euskadi Gobernuz Kanpoko Erakundea era ofizialean eratu zela hamar urte betetzen dira. Zenbaki borobil hau baliatuko du taldeak atzera begirako erakusketa bat antolatzeko. Elanek udara guztietan antolatu ohi duen Hegoari Begira erakusketaren barruan eskainiko du bere atzera begirakoa. Taldeak aurrera atera dituen proiektuak ikusi ahal izango dira bertan, zein talde eta jederekin egin duten lana. Elanek aukeraturiko izenburuan (artikulu honek duena hain zuzen) garbi ikusten da orain arte egindako bideari begiratuz gero, pauso asko eman direla aurrera, baina era berean, aurrera begiratuz gero, bideak jarraitu egiten duela, eta oinez jarraitzeko asmoa dutela.

Getariatik, Euskal Herritik abiatu, eta hainbat herrialdetan osatu ditu bere proiektuak Elanek, esaterako: Mexico, Kuba, Venezuela, Burkina Faso, edo Sahara. Hori erakutsiko da abuztuaren 11tik 20ra egingo den erakusketan, Gure Txeruk Kale Nagusian duen aretoan. Honekin batera, Hegoari Begira udarako ekimenak urtero izaten duen moduan (aurtengoa zortzigarren ekitaldia izango da), Bidezko Merkataritzako produktuak egongo dira salgai. Arratsaldero egongo da zabalik, 7tatik 9etara. Elan Euskadiren urteko ohiko batzarra ere egingo da, abuztuaren 20an, goizeko 11:30ean.

Kantatuz elkartu

"Sosa duenak kontatu, poza duenak kantatu" dio esaera zaharrak. Kubako herritarrak pozik egoten dira beraz, sarritan kantari ikusten ditugulako. Eta kantuarekiko maitasunak batzen ditu kubatarrak eta euskaldunak, doinu, erritmo, eta mugimendu ezberdinez, baina beti kanturako prest. Udara honetan kantatuz bi herriak elkartzeko modua izango da, Elan Euskadik antolaturiko bi ekimenei esker. Uztailaren 26tik 29ra haur kantari taldea etorriko da Getariara; 8 eta 15 urte artekoak dira, eta 28an kontzertua eskainiko dute, jarraian beraiek tarteko direla grabatu den "Viva Cuba" filma ikusi ahal izango delarik.

Ondoren, gure artean ezagun dugun Elkartasuneko Kontzertuak izenekoa, aurten Son del Rio taldea ekarriko diguna, beraien Son, Guaracha, Bolero, Salsa, etab-ekin. Abuztuaren 6an, Salbatore Egunean, eskainiko dute kontzertua. Beraiek bildutako diruarekin, Kubako haurren heziketan beharrezkoak diren materialak ordaintzeko aukera izango dute.

] Joxi Erauskin [

Ondarearen joan-etorriak

Herentziak ere izaten dira familietan –esan zion lagunari begira. Bai, hala da. Baina horretarako familiar aberatsen bat behar da eduki –erantzun zion berataz ari zela ohartu ez bailitzan. Izan ere, lagun honek, herentzia kontuak zirela eta familian gertatutakoaren berri zehatza jakin nahi zuen. Ez zeukan, ordea, inongo azalpenik eman beharrik. Garagardoari tragoxka bat eman eta zer esan ez zekiela geratu zitzaion laguna. Bazirudien ez zuela espero harengandik halako erantzunik. Orain artean isileko oro kontatu izan ohi zion. Sekreturik ez zen egoten beraien artean. Orain zergatik honelako mesprezua? Konfiantza falta agian? Irakurria zuen nonbait, libururen batean edo... A bai, aldizkari batean irakurri zuen: nola bi lagun min, konfiantza handikoak izan arren, iristen diren puntu batera, non bata bestearenganako konfiantza eten egiten den. Itzulbiderik ez omen da izaten une horretatik aurrera. Baina goazen harira. Lagunari ez zion kontatu nahi bere familian zorioneko herentzia horretaz gertaturikoa. Bitxia egiten da lagun mina deitzen zaion bati konfiantzako zerbait ez kontatzea. Baina egia esan berak dena kontatzen zion bitartean, hark entzun eta bere gauzak alerik ez zion kontatzen. Horregatik erabaki zuen hi hor eta ni hemen. Dena den, egia zen. Herentzia kontuagatik arazo asko izan zuten familian.

Herentzia hitza aipatze hutsarekin batera, jende askori Amerika urruneko lurraldeak ekartzen dizkio burura. Izan ere, nori ez diogu entzun edozein bazterretako herri koxkorren batean, halako familiako edo baserriko, edo zehatzago izatearren, abizen honelako edo bestelako, ez dakit nor Amerikara joan eta diruz josita itzuli zela, eta hil ondoren herentzia oparoa utzi ziela ilobei. Hots, hainbat urte egin ondoren Ameriketan bertakotu, ondorengorik izan ez, eta Euskal Herriko senideei utzi diela dirutza. Egoera eta konbinaketa asko gerta litezke. Nola ez. Penagarriagoa izango litzateke egoskorkeriagatik, hainbeste urtetako sakrifizioaren ondoren, dirua estatuari edo beste erakunderen bati ematea familia oparoa nonbait edukita.

Herentzia hitzak badu halako xarma berezi bat. Badirudi, hori jaso duenak "viva la pepa" bizi ahal izango dela azken hatsa arnastu arte. Eta noski, hitz hori entzutearekin batera denok amestu izan dugu grazia horretan egotearen nahia.

Neuk ere txikitan entzuten nionean lagun bati bere osaba Ameriketara joan zela gerra garaian, ez nuen pentsatzen aberastuta egongo zenik. Bai ordea, entzuna nion gure aitari herriko beste bi gizaseme Ameriketan zirenak nola itzuli ziren diruz lepo eta orain nola bapo bizi ziren txalet eder batean.

Orain, gerta liteke baita ere Ameriketatik jasotako herentzia berriro bueltan hara itzultzea. Hori gertatu zitzaion mutil zahar bati. Nola edo hala, Ameriketatik herentzia polita jaso zuen, eta bakarrik sentitzen zenez pentsatu zuen neska beltzaran batekin ezkontzea bere barreneko bakardade hura asetzeko asmoz. Joan da Dominikar Errepublikara eta aurkitu du han bat. Ai, mi amor! Txora-txora eginda ekarri du Euskal Herrira eta berehala ezkondu dira. Emakumea konturatu zenean diru asko zuela, saiatu zen bere trikimailu guztiekin dirua erdibana jartzen, mutiltzar gizajoa seko maiteminduta baitzegoen, sinetsirik emakumea bere mende zeukala. Laster hasi zitzaion Amerikara hegazkina hartu eta familiakoei bisitak egiten. Nebak ikasi egin behar zuela... arreba banandu egin zela eta dirua behar zuela bere haurrak mantentzeko eta aitzakia franko dirua hara eramateko. Baina hor ez zen bukatu kontua. Azkenean bankutik ahal zion diru guztia atera, eta Ameriketara ihes egin zion betiko. Gizona aireportura atzetik joan zenean ozta-ozta hegazkineko leihotik agur esaten ikusi zuen bere emaztea izan zuenaren eskua.

Birjintasuna galdu zenuen

Birjintasuna galdu zenuen. Lehenengo aldiz zen biluzten zinela. Andaluziako hondartza bat zen, hippy kapitalistek* naturista deitutako batean. Aurrez gertutik ezagutu duzun bakarra Zarauzko kanalean dagoena izan da eta handik paseatzen pasa zarenean, urertzetik, ezkutuko begiradak botatzen zenizkien goi aldean zeuden ausartei. Gehienak arrak ziren. Ar iletsuak, buztandunak, zatarrak. Ez zenuen uste noizbait zu ere trantze horretan aurkituko zinenik.

Bazindoazen toki estrategikoaren bila, ez erdi ez izkina. Artean jantzita, txankletak eskuetan, kanalean bezalatsu ari zinen ezker eskuin klandestinoki begiratzen. Ar iletsu eta itsusiak han ere baziren… et, et, et, baita Evaren oinordekoak ziren emeak ere. Top-lessean ikusten ohituta zeunden, baina Venusen sekretua agerian hain libre eta sano… Biba naturismoa!

Iritsi zinen T tokira, O ordua zen eta U unea: jaitsi zenuen traje-bainua, kendu nikia eta han zeunden Adan baino ederrago, ileak depilatu berriak, muskulu bakoitza bere tokian ondo jarrita, zure ustez inguruko guztiak miran zenituela. Zut, zut, zut, epa! Bat-batean zure "anai txikia" hazten hasi zitzaizun eta zuk ezin menderatu. Naturismoan hasiberria, nobatoa alegia. Zure hankarteari hitz egiten hasi zinen, ez arrotzeko erregutuz, ez zela unerik egokiena eszibizioak egiteko. Buruhandiak, ordea, ez zizun kasurik egiten eta zuri zer okurrituko eta uretara korrika joatea, hala! Afrikako massai tribuko aborigena zenirudien, lantza goi-gora begira, ero bat bezala saltaka.

Uretan zure ARrotasuna aplakatuko zela uste izan zenuen, bai zera! Han jarraitzen zuen, egoskor, goiari eutsiz. Urertzean, berriz, bi neska txirlak biltzen ari ziren eta ezin zenuen On Kixoteren piura harekin hondarretara atera. "Igeri egingo dut, ea pentsamenduak Getaiko Biatloian jarrita, kabroi hori txikitzen dudan". Igerian ari zinela "kilak" frenoa egiten zizun eta zu gustura, gogor entrenatzen ari zinelakoan, biatloiaren egunean horrelako oztoporik ez baitzenuen izango, txapeldun!

Azkenean lortu zenuen zure helburua, totema txanpiñoi bihurtzea. Normaltasunera iritsi zinela uste zenuenean, begiratu zenien beste buztandunen hankartera eta ohikoa den bezala, konparazioak egiten hasi zinen. Eta… itsasoko ur freskoak gehitxo txikitu zizun anaiatxoa! Tamainak axola ez duela esaten bada ere, zu txanpiñoiari tiraka hasi zinen, ea tamaina estandarra hartzen zuen, tira eta tira… fuerabordako motorra arrankatzen ariko bazina bezala.

Beste buztandunekiko globalizazioa lortu zenuenean, atera zinen uretatik zure kanpamendu basera joateko. Egoera menderatua zenuen. Seguru sentitzen zinen… Halako batean, txirlak biltzen ari ziren neska parea zuregana hurbiltzen ikusi zenituen eta zu "ez, ez, ez, berriz ez" ahapeka. Ordua galdetu zizuten, ez baitzinen konturatu pultsometroa kendu gabe zenuela eta eskumuturrean tamainako "patata" nabarmen geratzen da gorputz biluzien artean. Eskerrak eguerdiko ordu-batak ziren: ez laurden, ez erdi, ezta laurden gutxiagorik, erantzuna azkar emateko moduan; bestela zut, zut, zut, anai txikia arrotzen hasia baitzenuen ordurako.

Pentsamenduak beste iturrietara eramateko asmoz, walkmana jarri zenuen. Irratian sexologoa kalakan ari zen: "Zakilak bere burmuintxoa du, hots, neurona propio gutxi batzuk ditu zakilburuan, gizonaren burmuinetik (hipotalamotik) aparte".

Eta zuri ikusita, gizona, orain konturatzen naiz zure hankartean duzun neurona kopuru hori nahikoa dela lepo gainean daramazkizunei irabazteko.

* Hippy kapitalista: bere burua progretzat duena, bere ustez ezkertiarra, marihuana eta hachissa erosteko inoiz 50 eurikorik faltako ez zaiona, 40.000 euroko furgoneta erabiltzen duena oporretara joateko…

Maria Jesus eta Maria Isabel "Bixkiak": "Getariarrak gara baina beti ez gara hemen bizi izan"

Herrian "Bixkiak" ezizenez ezagunak dira bi emakume hauek. Mari Jesus (ezkerrekoa) eta Maria Isabel (eskuinekoa) herrian jaioak dira, baina ia mende laurdena Orion bizi izan dira. 23 urte zituztela etorri ziren Getariara lanera.

Oso txikiak zirela, ia jaio berritan, bi hilabeterekin, Maria Jesus eta Maria Isabel Oriora eraman zituzten. Horren arrazoia euren gurasoak bertakoak zirela zen, eta lana zela eta, Oriora joan beharra izan zuten: "Getariarrak gara baina beti ez gara hemen bizi izan; bi hilabeterekin joan ginen Oriora eta hogeita hiru urte genituela etorri ginen berriz ere Getariara. Urte asko egin genituen Orion, gurasoak hangoak ziren eta, gurasoen lana zela eta, han bizi izan ginen".

Maria Jesusek Orioko tindategi batean egin zuen lan, eta 1972. urteko apirilaren 14an "Biskiak" izeneko tindategia ireki zuen herrian: "Nik (Maria Jesus) Orioko tindategi batean egiten nuen lan eta banekien, gutxi gorabehera, nolako zen tindategi baten funtzionamendua, eta Getarian negozio hau ipintzea erabaki genuen". Bi ahizpen artean ireki zuten negozioa, nahiz eta familiakoen laguntza ere izaten zuten: "Hemen biok bakarrik egin izan dugu lan, baina lan asko zegoen egunetan gure ahizpak etortzen ziren esku bat botatzera".

Tindategian bi lan mota egiten dituzte, alde batetik, garbiketa lehorra, edo erdaraz esaten den moduan "limpieza en seco", eta bestetik, labanderia zerbitzua ere badute. Labanderiaren kasuan, lana kanpotik ekartzen dutela esan digute bi ahizpek: "Ni (Maria Isabel) egunero Pasaiara joaten naiz eta itsasontzietako, merkataritza-ontzietako, arropak, maindireak… ekartzen ditut tindategira". Honez gain, beste bezeroek eramandako arropak ere garbitzen dituzte.

Urteak aurrera joan dira, baina Maria Jesus eta Maria Isabelek adierazi digutenez, orain urte batzuk zuten lan egiteko funtzionamendua eta oraingoaren artean ez dago alde handiegirik; gauza berdina esan digute makinariari buruz galdetu diegunean ere: "urte guzti hauetan, lan egiteko funtzionamendua ez dugu aldatu, eta negozioa ireki genueneko makinaria berdinekin jarraitzen dugu".

Baina tindategiko negozioa ez da Maria Jesus eta Maria Isabelek izan duten ogibide bakarra, zerbitzari moduan ere lan egin izan ohi dute. Jatetxe desberdinetatik deitzen zieten eta bertara joaten ziren asteburuetan ere: "Ni (Maria Jesus) zazpi urtez egon nintzen Kaia jatetxean lanean eta, Dukenera ere joaten nintzen. Ni (Maria Isabel), berriz, nire bizitzako hamahiru urtetan Astillero jatetxeko zerbitzari izan nintzen, eta hiru udatan Getarianoko sukaldean ere egon nintzen lanean". Bi ahizpek tindategia eta zerbitzari lana uztartzen zituzten, eta tindategian lan asko zegoenean, etxekoek, ahizpek, laguntzen zieten: "jatetxeetatik deitzen zigutenean, bertara joaten ginen lanera, eta hemen, tindategian, lan asko zegoenean, gure ahizpak etortzen ziren laguntzera".

"Ia egunero herriko arraunlariak ibaian entrenatzen ikusten genituen"

Beraien zaletasunei buruz galdetzerakoan, bi ahizpek aho batez erantzun digute: "arrauna". Hau ezaguna da herritar guztion artean, eta honen zergatiari buruz galdetzean hau erantzun digute: "Orion ibai ondoan bizi ginen, Orioko kofradian, eta ia egunero herriko arraunlariak ibaian entrenatzen ikusten genituen". Honez gain, beraien aitak batel bat zuen eta bi ahizpak batelean jarri eta ibaian gora eta behera ibiltzen zirela aitortu digute: "herriko mutilek ere eskatzen ziguten batela eta gure aitak beti uzten zioten. Inoiz ez zien ezezkorik esan; batela ongi zaintzea eta garbi mantentzea zen ipintzen zituen kondizio bakarrak, eta halaxe izaten zen, mutikoak oso ongi portatzen ziren, eta ez genuen inoiz arazo berezirik izan".

Aurtengo irailean ere kolore horiz jantziko dute etxeko balkoia. Hori, dagoeneko tradizio bilakatu da Bizkien etxean, eta Kontxako Estropadan Orioren alde egingo dutela aitortu digute.

Osagaiak (4 lagunentzako):

50 gr haragi pikatu

xerra 1 Jamon York

Porru erdia

Azenario 1

Baratxuria

Piquillo piper pote bat

Arrautzak

Irina

Olioa

Gatza

Saltsarako:

Nata

Tomate frijitua

2 piquillo piper

Hilabete honetan, udako gau giroan eta lagun artean gozatzeko errezeta goxo bat dakarkigu Monikak. Erraz eta denbora gutxian egiko errezeta da honako hau. On egin!

Piperrak haragiz beteak

Egiteko modua:

Azenarioa, baratxuria eta Jamon York zati txikitan moztu, eta haragi pikatuarekin batera, su hilean eduki ondo egin arte. Dena frijitu ostean, piperrak bete eta arrautza eta irinetan pasa ondoren, frijitu. Saltsa egiteko orduan, tomate frijitua, nata eta saltsarako utzitako piperrak irabiagailutik pasa, eta piper beteei gainetik bota.

LOS EDUCADORES (filma)

“Nik ez dut zure dirua nahi”

Zuzendaria:
Hans Weingartner
Musika: Andreas wodraschke
Generoa: drama
Herria: Alemania-Austria
Irupena: 127 minutu.

Mundua aldatzeko gogoa modu askotara ikus daiteke. Helburu hori burutzeko ordea, formula bat asmatzea beharrezkoa da, esaterako, dirudunen etxeak erasotzea. Erasotzeak esanahi asko izan ditzake, eta horietako bat, imajinazioa erabiliz, dirudunen etxeetara sartu eta bertako gauza (jabetza) guztiak lekuz aldatzea eta mezuak idaztea da. Ekintza poetiko honen bidez bizitzeko sistema aldarrikatu nahi dute hiru gaztek, bi mutilek eta neska batek, eta benetako baloreez gogoeta egin. Gaur egun gero eta gehiago edukitzearen morroi bihurtu gara, gure ustez, inoiz baino askeago bizi garen mende honetan. Aske bizitzea ez da erraza ordea, jakin egin behar da. Lotuta bizitzera kondenatuta gaude; etxebizitza, autoa, eskola pribatuak, oporrak, bikotea... Bizitzeko oinarrizko baldintzak luxu bilakatu dira. Daukanarentzat asko dago eta ez daukanarentzat ezer ez.

Oraindik itxaropena egongo da gazteok ekintza hauen arrazoia ulertzeko gai bagara. 60. hamarkadan jaiotako hippiak ez bagara ere, haien ondorengo gazte idealistak gara, ameslariak. Dena da lokarria. Askatasuna segurtasuna baino askoz indartsuagoa da, baita arriskutsuagoa eta zirraragarriagoa ere. Aske sentitzearen beldurra kilikagarria izan daiteke ametsak gauzatzeko. Hirukote hauen arteko sentimenduek nahasmena sortuko badute ere, talde-lanaren garrantzia, elkarlana, nabarmena izango da.

“Piztu segurtasun alarma”

GOROSTIAGA Anaiak, O.E.
KONTSERBAGILEAK
EDARI BANATZAILEAK
Txoritonpe, 3 · tel.: 943 14 01 07
20808 GETARIA

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA,17
☎ 14 07 04

IMANOL ELORZAren ERAKUSTOKIA
IMA ELORZAREN ESKULTURAK
eta
IMANOL ELORZAREN OLIOZKOLANAK
katrapona 2, 20808 Getaria

] abuztuko eta iraleko agenda

abuztua

] festak

[Abuztuak 4, ostirala]
GAZTEEN EGUNA

12:00etan, "UDA 2006" FRONTENIS TXAPELKETAKO finala

17:00etan XIII. GOITIBEHERA LASTERKETA

19:30ean, KOADRILEN ARTEKO HERRI KIROLEN III. OLINPIADAK frontoian

[Abuztuak 5, larunbata]
KOADRILEN EGUNA

10:30ean, koadrilen arteko X. MARMITAKO TXAPELKETA

14:30ean, koadrilen arteko HERRI BAZKARIA

22:30ean, kiroldegi kanpoko pistan NOIZNAHI 06 JAIALDIA: THESE ARMAS ARE SNAKE (Seatle, AED), DELOREAN (Zarautz)

24:00etan, IKURRINAREN GORATZEA

[Abuztuak 6, igandea]
SALBATORE DEUNAREN EGUNA

09:30ean, Getariako Musika Bandaren GOIZERESIA

13:30ean, KOPLAK: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña

17:30ean, SALBATORE DEUNAREN IX. PILOTA TXAPELKETAko finalak

23:00etan, moilan, SU ARTIFIZIALAK

Ondoren, GETARIAKO KONPARTSAREN emanaldia: "Mouligne Rouge musikala"

[Abuztuak 7, astelehena]
HAURREN EGUNA

Goiz eta arratsaldez, HAUR PARKEA
19:00etan, Artzapen, CAPOEIRA ETA MAKULELÉ ERAKUSTALDIA

20:00etan, kiroldegi kanpoko pistan, GAZTEOK TALDEAren emanaldia

[Abuztuak 8, asteartea]
ARRANTZALE EGUNA

12:30ean, Berdura plazan, SAGARDO DASTAKETA eta ATUN JANA

18:30ean, ESTROPADAK: GIPUZKOAKO TRAINERU TXAPELKETA

Ondoren, plazan, EUSKAL OKELAREN PINTXO-DASTAKETA

23:00etan, kiroldegi kanpoko pistan, EKO ZUZENEAN: Xabi San Sebastian, Afrika, Jon Urdangarin eta Bihotz Gorospe

01:00etan, frontoian, ordu beteko ERGOMETRO ERAKUSTALDIA eta JULIO ARANBURU SOKA SALTOAN, 6.000 salto.

*** Eguna girotzeko, irten zaitez arrantzalez jantzita.

] estropadak

[Abuztuak 15, asteartea]
GETARIAKO BANDERA
Ordua: 12:00etan

[Abuztuak 7, astelehena]
GIPUZKOAKO TRAINERU TXAPELKETA
Ordua: 18:30ean

] erakusketak

[Auztuaren 11tik 20ra]
HEGOARI BEGIRA 2006 (VIII). ELAN-EUSKADI: HAMARKADA BAT
Lekua: Gure Txeru
Antolatzailea: Elan-Euskadi GKE
*Bidezko merkataritzako produktuak salgai

] musika

[Abuztuak 12, larunbata]
Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan, DONOSTIAKO TALDE BARROKOAren KONTZERTUA
Ordua: 20:30ean
Lekua: Salbatore Deunaren Eliza
Antolatzailea: Donostiako Musika Hamabostaldia

iraila

] irteerak

[Irailak 3, igandea]
IPARRALDEA EZAGUTUZ: Larrun mendira trenez, Zugarramurdira eta Sarako kobazuloetara.
Antolatzailea: Udala

] emanaldiak

[Irailak 22, ostirala]
GURE TXERU TALDEAREN DANTZA ERAKUSTALDIA

] lehiaketak

GETARIAKO II. ARGAZKI LEHIAKETA

] besteak

[Irailaren 18tik 24ra]
KULTUR ANIZTASUNAREN ASTEA. HITZALDIAK, JAI-GASTRONOMIKOA, EKI-TALDIAK...
Antolatzailea: Udala
Laguntzailea: Elan-Euskadi eta etorkinak

telefono interesgarriak

Udal bulegoa 943 896 024
Faxa 943 140 190
e-mail:udala@getaria.org
Kiroldegia 943 140 432
Kirol-portua 943 580 959
Taxiak
Segundo 607 720 242
Jose Mari 607 403 498
Udaltzaingoa 943 896 146
Liburutegia 943 896 147
Anbulatorioa 943 140 957
Botika 943 140 441
Herri Eskola 943 140 729
SOSdeiak 112
Artzape 943000548

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: abuztuaren 21etik 27ra (biak barne)

Izozkia jaten

Maria Jesus Aizpuruk utzitako argazkia.

Argazki honek ere baditu urteak. Udako beroari aurre egiteko, eta gorputza freskatze aldera, herritarrek Xixili dendara joateko ohitura zuten, eta bertan, izozki gozoak dastatzen zituzten. Argazki hau Salbatore jaietan ateratakoa da. Egun hauetan Xixili dendara izozki bat jatera joatea errito moduko zerbait bilakatu zen getariarrentzat.

Goiko aldean ikus ditzakegun lagunak honako hauek dira; gizonezkoak ezkereskuin: Jacinto Isasti, Ignacio Alberdi eta Agustin Manterola. Argazkiko emakumea Maria Jesus Aizpuru da.

Zorion agurrak

Pello, Iban eta Unai Isasti
Abuztuak 5
Zorionak hirukote zuen urte betetze egunean!

Garazi eta Juanjo Eizagirre
Abuztuak 17 eta 13
Zuentzako dira gure muxu potolo guztiak!



June Vidal
Abuztuak 29
Zorionak etxeko sorgiñari! Aita, Ama eta bereziki Lukenen partetik.

Itsaso Ezenarro
Uztailak 21
Zorionak, potxola! Eta eskerrik asko bazkariagatik, lehen mailakoa! Familia.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edota Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideek doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

TXOKO
ERRETEGIA
kaia gainean. Tlf. 943 140 539

GETARIARRON TOPAGUNEA
artzape
JARRI ZURE PUBLIZITATEA

BALEARRI
jatetxea-txiringitoa
kaia z/g Tel.: 943 58 09 11 20808 GETARIA

SALBATOREETAN IZANGO DUGU

FESTARAKO HAINBAT AUKERA

JENDE ASKOREN PARTE-HARTZEAK

ETA BAKOITZAN JARRERA

HORI GUZTIAZ ARDURATURIK

ATERA ZAITEZ KALERA

EMAN DIEZAIOGUN HERRI HONI

MEREZI DUEN JANZKERA

GETARIAKO UDALA